



200 EUROKO LAGUNTZA TRAMITATZEKO GIDA

1. ESKAERA EGIN AURRETIK, JAKIN DEZAZUN...

- 200 euroko laguntza bakarra da.
- Eskaerak 2022ko irailaren 30era arte egin daitezke, egun hori barne.
- Laguntza ez da automatikoki ematen. Zure eskaera aztertu egingo da. Horretarako, [ziurtagiri elektronikoa](#), [BakQ](#) edo [BAK](#) beharko da.
- Eskaerei erantzuteko epea abenduaren 31n amaituko da. Ordurako erantzunik jasotzen ez bada, eskaera ukatutzat hartuko da.
- Laguntza telematikoki bakarrik eskatu daiteke.
- Interesdunak edo bere ordezkari tributarioak bakarrik aurkeztu dezake eskaera.
- Oro har laguntza zuzenduta dago 2021ean 14.000 eurotik beherako urteko diru sarrerak eta 43.196,40 eurotik beherako ondarea dituzten bizikidetzaren unitateei, betiere kalkuluan ohiko etxebizitza sartu gabe. Gainera, laguntzatik kanpo gelditzen dira bizitzeko gutxieneko diru sarrera (BGD), Gizarte Segurantzaren pentsio bat edo antzekoa jasotzen dutenak.

Gai horiek eta beste batzuk [esteka honetan](#) (soilik gaztelaniaz) kontsultatu ahal izango dituzu.

2. NOLA TRAMITATU ESKAERA

1. [Zergabidea](#) estekan, eremu urdinean zure burua identifikatu behar duzu, TRAMITEAK ONLINE-EN BITARTEZ SARTU eremuan:

TRAMITEAK ONLINE BITARTEZ SARTU

Tramiteak Online

ZIURTAGIRIA, BAKQ ETA BAK

Identifikazio mota jasagarriak

- * BAK
- * BAKQ
- * Ziurtagiri digital
- * Ziurtagiri profesionala hodeian

Non eta nola eskatu BAK?

Onartutako ziurtagiriaren zerrenda

Behar izan teknikoak: Nola frogatu dezaket sinadura elektronikoa?

SARTU

BESTE SARBIDE BATZUK

Zergabidean dauden funtzionalitate guztiak ezingo dituzu exekutatu.

Erabiltzailea

Pasahitza

SARTU

Pasahitza ahaztu duzu edo erabiltzailea blokeatuta daukazu?

Ez daukazu erabiltzaileirik eta pasahitzik?

ERABILTZAILEA SORTU



- Horretarako, [ziurtagiri elektronikoa](#), [BakQ](#) edo [BAK](#) beharko da.
2. Modu horretan, zuzenean eredu hau agertuko zaizu: “BNI – 200 euroko laguntza sarrera eta ondare-maila baxua duten pertsona fisikoentzat”.

The screenshot shows the 'AITORPEN ZIRRIBORRO BERRIA' form. The 'Eredua' dropdown menu is open, displaying the following options:

- BNI - 200 euroko laguntza sarrera eta ondare-maila baxua duten pertsona fisikoentzat
- Aukeratu eredu bat ---
- BNI - 200 euroko laguntza sarrera eta ondare-maila baxua duten pertsona fisikoentzat
- CBK - Carry back. Jarduera ekonomikoko galerak konpentsatzeko kenkaria
- DCC - Kuota bateratuen banakapenaren aitortpena
- KAR - Urtean egindako kilometroak (gasolio profesionala)
- KTB - TicketBai obligazioa borondatez betetzeak dakartzan kenkarien aurrerakina

3. Aitortzailea eremuan, eskatzailearen edo ordezkatu tributararioaren NAN, abizenak eta izena jarri eta SORTU botoia sakatuko dugu.

The screenshot shows the 'AITORPEN ZIRRIBORRO BERRIA' form with the following fields filled out:

- Eredua: BNI - 200 euroko laguntza sarrera eta ondare-maila baxua duten pertsona fisikoentzat
- Aitortzailea: --- Aukeratu aitortzaile bat ---
- Ekitaldia: 2022
- Epealdia: Urtekoa

Buttons: Utzi, SORTU

4. Jarraian, pantaila hau agertuko da:

The screenshot shows the 'AITORPEN BERRIA ZIRRIBORROAN' form. It displays the following information:

Datu orokorrak

- Aitortzailea: 72 [redacted]
- Eredua: BNI - 200 euroko laguntza sarrera eta ondare-maila baxua duten pertsona fisikoentzat
- Ekitaldia: 2022

Betetzeko era

Ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege Dekretuak (haren bidez neurriak hartu eta luzatzen baitira Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei eta zaugarritasun sozial eta ekonomikoko egoerei erantzuteko eta La Palmako uhartearen suspertze ekonomiko eta soziala bultzatzeko) sarrera- eta ondare-maila baxua duten pertsona fisikoentzako zuzeneko laguntza-lerro bat ezarri du, pertsona horiek direla soldatapekoak, direla langile autonomoak edo langabetuak.

Buttons: Utzi, Ados



Sistemak aurkitzen badu, hasieratik, eskatzaileak ez duela betetzen laguntza jasotzeko baldintzaren bat, ez dio utziko eskaerarekin jarraitzen. Eskaera egiten jarraitzeak ez du esan nahi laguntza hori jasotzeko baldintzak betetzen direnik; aitzitik, Administrazioak geroago egiaztatuko du eskaera.

5. ADOS botoiari eman ondoren, pantaila hau agertuko da:

← LABURPENERA JOAN ← AURREKOA HURRENGOA → **AURKEZTU**

AITORPEN ZIRRIBORROAREN LABURPENA

Eskatzailearen datuak

| IZF | Izen-deiturak | Telefonoa |
|-----|---------------|-----------|
| | | |

2022ko ekainaren 27ko baldintzak

| | |
|--|-----|
| Lan bat egiten zuen edo jarduera ekonomiko bat egiten zuen, eta horretarako Gizarte Segurantzaren edo Mutualitate batean alta emanda zegoen. | --- |
| Langabezian zegoen eta enplegu-bulego batean izena emanda. | --- |
| Legezko eta benetako bizilekua Espainian zuen, eta, jarraian eta etenik gabe izan du, urtebete gutxienez data horretatik atzera. | --- |

Adierazpena

Nire erantzukizunpean adierazten dut eskaera honetako datuak egiazkoak direla

Emaitza

Itzultzekoa: 200,00 €

6. Jarraitzeko bi aukera daude:

- HURRENGOA sakatzea eta pantailaz pantaila jarraitzea.
- AURKEZTU botoia sakatzea, eta osatzeko dauden akatsak eskuinaldean aterako zaizkigu. Hori izango da, agian, aukerarik onena.

2022ko ekainaren 27ko baldintzak

| |
|--|
| <input checked="" type="checkbox"/> Lan bat egiten zuen edo jarduera ekonomiko bat egiten zuen, eta horretarako Gizarte Segurantzaren edo Mutualitate batean alta emanda zegoen. <small>Bi baldintza horietako bat hautatu behar da</small> |
| <input type="checkbox"/> Langabezian zegoen eta enplegu-bulego batean izena emanda. <small>Bi baldintza horietako bat hautatu behar da</small> |
| <input checked="" type="checkbox"/> Legezko eta benetako bizilekua Espainian zuen, eta, jarraian eta etenik gabe izan du, urtebete gutxienez data horretatik atzera. <small>Derrigorrezko eremua</small> |

Utzi **GORDE**



7. Beste urrats batzuen artean, bizikideen zerrenda osatu behar da. Eskatzailea EZ BADA BIZI 3. mailarainoko senideren batekin, dagokion laukia markatu behar da:

← LABURPENERA JOAN ← AURREKOA HURRENGOA → AURKEZTU ⚠

BIZIKIDEEN ZERRENDA

Bizikideen zerrenda 3/4 atala

Markatu lauki hau, baldin eta 2022ko urtarrilaren 1ean 1., 2. eta 3. puntuetan adieraziko diren pertonekin bizi ez bazinen.

Bestela, identifika itzazu 2022ko urtarrilaren 1ean zure helbidean zurekin bizi ziren pertsonak, aldi berean:

- 1) zurekin ezkontide edo bikotekide gisa elkartuta daudenak.
- 2) Zurekin hirugarren mailarainoko ahaldetasuna dutenak, ezkontza bidezko harremana barne (adibidez: seme-alabak, anai-arrebak, aitona-amonak, osaba-izebak, erraina, bilobak...)
- 3) Adopziorako edo familia harrera iraukorrerako zaintza dela medio aurrekoekin bizi diren beste pertsona batzuk.

IFZrik ez duten 14 urtetik beherako pertonekin biziz gero, nahitaezkoa da jaioteguna betetzea.

[+ Gehitu](#)

Senideekin BIZI BADA, gehitu botoia sakatuko dugu, eta senide bakoitzeko derrigorrezko eremu hauek bete beharko ditugu: izena, lehen abizena, jaioteguna eta ahaldetasuna.

Bizikidea

IZF

Izena *

Lehen abizena *

Bigarren abizena

Jaioteguna *

Ahaldetasun *



8. Zerga helbide osoa jarri behar du, sistemak zenbaki finko bat eman arte (katastroko erreferentzia adierazten du). Bertara sartzea lortzen ez baduzu, jarri harremanetan departamentuarekin, 943 113 000 telefono zenbakira deituta, astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara.

Helbidea

Probintzia: GIPUZKOA

Udalerrria: TOLOSA

Kalea:

Helbidea:

Deskribapen osagarria (lursaila...):

Atalondoa:

Eskailera:

Oina:


Eskua:

Posta kodea:

Katastroko erreferentzia:

Zenbaki finkoa-katastroko erreferentziaren adierazlea:

Higjezinaren kokalekua * Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dagoen higjezina

Utzi  GORDE

9. Jada gorriz ezer agertzen ez denean, AURKEZTU botoia sakatu ahal izango da.

10. **Nola zuzendu dagoeneko aurkeztutako aitortpen bat?** Zergabidean, "bigarren aurkezpeneak" atalera joan beharko da, eta bidalketa berria «ordezko aitortpen» gisa aukeratu.

Aurkezpena

Identifikatzailea: 6264737

Aurkezteko modua: Zergabidea - Ziurtagiria

Aurkezpen data: 26/07/2022 14:22:24

Epemuga: 30/09/2022

Bigarren aurkezpeneak (ordezkoak eta osagarriak)

Ordezko aitortpena.

Ordainketak eta Itzulketak

3. GORABEHEREKIN ONARTUTAKO AITORPENA

Aurkitutako gorabeherak ez dute eragozten aitorpena onartutzat hartzea, eta, beraz, aurkezlearen eskura jartzen dira bai aitorpenaren PDFa bai aurkezpenaren egiaztatzea. Dena den, "igorpenaren xehetasuna" begiratuta eta "ekintzak" zutabeko arretaren ikonoan sakatuta, aurkitutako gorabeherak eta haiek zuzentzeko modua identifikatu ahal izango dituzu.

AITORPENAREN XEHETASUNAK AURKEZPENA EZABATU

Aurkezpenaren datuak Erantsitako dokumentuak 0 Jarduaketak Gorabeherak 1

| IFZ | Aitortzailea | Eredua | Eki. / | Epeakia | Aurkez. dat. / | Estatua | Emaitza | Zenbatekoa | Ordaintzeko modua | Ekintzak |
|-----|--------------|--------|--------|---------|----------------|-----------------------|--------------|------------|-------------------|----------|
| | | 109 | 2019 | DA | 03/04/2020 | Gorabeherekin onartua | Ordaintzekoa | 33.351,80 | Helbideratzea | |

AITORPENAREN XEHETASUNAK AURKEZPENA EZABATU

Aurkezpenaren datuak Erantsitako dokumentuak 0 Jarduaketak Gorabeherak 1

1 EMAITZA ESPORTATU

| Kodea | Eremua | Deskribapena | Xehetasuna |
|-------|--|----------------------------|------------|
| 10230 | Sistemak ez du zure kontuari buruzko informaziorik, edo ez zara titularra. | Egiaztatzeke dagoen kontua | |

Gorabeheraren xehetasuna

Egiaztatzeke dagoen kontua: Sistemak ez du zure kontuari buruzko informaziorik, edo ez zara titularra.

Adierazitako kontuak ez ditu betetzen helbideratzea edo itzulketa tramitzeko beharrezkoak. "Aurkezpenaren datuak" erlaitzeko "Ordainketak eta itzulketak" apartatutik titulartasunaren frogagarria erantsi behar duzu: aurrezki libretaren, kontu korrontearen, finantza entitateak bidalitako laburpenaren edo IBAN kodea eta titularrak jasotzen dituen beste edozein dokumenturen fotokopia. Beste titular baten kontuan kargatzekotan, haren baimen espresua behar da hura egiaztatzen duen bat aurkeztuta. Bestela, zure titulartasuneko beste kontu bat hautatu dezakezu, baita beste ordainketa modu bat aukeratu ere.

3.1. Gorabehera: kontua egiaztatu gabe

Sistemak aurkitu du aitorpenean jarritako banku kontuaren titularra akreditatu gabe dagoela. Kasu horretan, gorabehera zuzentzeko, aukera hauek izango dituzu:

- Kontu erabilgarriak ataletik beste kontu bat aukeratzea, itzulketa egiteko.
- Aitorpenean jarritako kontua mantentzea eta titulartasunaren egiaztatzea eranstea. Egiaztatzea eskaneatu beharko da, eta BAIEZTATU botoia erabilia bidali.



3.2. Gorabehera: kontuak ez du itzulketarik onartzen

Sistemak aurkitu du aitorpenean jarritako kontuak ezin duela kargurik edo itzulketarik onartu. Ondorengo itzulketa tramitean arazorik ez izateko, gomendagarria da kontu hori berrikustea, eta, halakorik ez badago, egiaztatzea hura zuzena dela **BERRETSI** botoia sakatuz. Horrela, gorabehera desagertu egingo da, eta ez da berriro agertuko, baldin eta, geroago, banku kontu hori bera erabiltzen badu beste aitorten batzuetan.

Aitorpenean jarritako kontua indarrean ez dagoela egiaztatzen badu, bai banku bulegoaren zenbakia aldatzeagatik, bai beste arrazoi batengatik, aurkezleak kontu hori eguneratu beharko du, edo, bestela, **KONTU ERABILGARRIAK** ataletik itzulketa egiteko beste kontu bat aukeratu, titulartasuna egiaztatuta duena.